



**Nº 202/2022 EBAZPENA, irailaren 15ekoa, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Arabako Osasun Mentaleko Sareko Bitarteko Egituretako Atal Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.**

### AURREKARIAK

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearen maiatzaren 12ko 133/2022 Ebazpenaren bidez deialdi publikoa egin zen Arabako Osasun Mentaleko Sareko Bitarteko Egituretako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko uztailaren 13ko EHAA 135. zk. eta 2022ko uztailaren 23ko BOE 176. zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko abuztuaren 17an amaitu zen.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentearen 2022ko abuztuaren 18ko 199/2022 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

### EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Arabako Osasun Mentaleko Sareko Bitarteko Egituretako Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)



## Osakidetza

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioko Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 15.

*pos orden*

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari gerentea  
MIREN EGUZKIÑE DE MIGUEL AGUIRRE



## I ERANSKINA

ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO BITARTEKO EGITURETAKO ATAL  
SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- JUAN LARUMBE OCHOA

Baztertuak:

- Inor ez

## II ERANSKINA

ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO BITARTEKO EGITURETAKO ATAL  
SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA

### BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: ALVARO IRUIN SANZ  
Ordezkoa: LANDER HIJONA MURUAMENDIARAZ

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: ANTONIO ARRAIZA ARMENDARIZ  
Ordezkoa: JUAN BAUTISTA LETONA ARAMBURU

Bigarren batzordekidea:

Titularra: MARIA CRISTINA CORTAJARENA GARCIA  
Ordezkoa: ANA BLANCA YOLLER ELBURGO

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: RAFAEL SANCHEZ BERNAL  
Ordezkoa: EDUARDO JOSE ELIZAGARATE ZABALA

Laugarren batzordekidea:

Titularra: FELIX INCHAUSTI GOMEZ  
Ordezkoa: ANDREA GABILONDO CUELLAR

Idazkaria:

Titularra: MARIA JOSE PUJANA URIARTE  
Ordezkoa: FRANCISCO JAVIER PEDROSA RODERO

BITARTEKO EGITURETAKO PSIKIATRIAKO ATAL SANITARIOKO ZUZENDARITZAREN KUDEAKETARI BURUZKO MEMORIA-PROIEKTUEN **AURKEZPEN PUBLIKORAKO** DEIALDIA, ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREAK DEITUA

CONVOCATORIA DE LA **EXPOSICION PÚBLICA** DE LA MEMORIA-PROYECTO DE GESTIÓN DE LA JEFATURA DE SECCION SANITARIO DE PSIQUIATRÍA DE ESTRUCTURAS INTERMEDIAS CONVOCADA POR LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA

<b>LANPOSTUA/PUESTO</b>	<b>LEKUA ETA DATA/LUGAR Y FECHA</b>
Arabako Osasun Mentaleko Sareko Bitarteko Egituretako Psikiatriako Atal Sanitarioko burua  Jefe de Sección Sanitario de Psiquiatría de Estructuras Intermedias de la Red de Salud Mental de Araba	<b>AOMSeko Liburutegia/Biblioteca RSMA</b> <b>Eguna/Día:</b>  2022ko irailaren 21ea.  21 de septiembre de 2022
<b>Hurrenkera/Orden</b>	<b>Ordua/Hora</b>
11:30': JUAN LARUMBE OCHOA	

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 13a./En Vitoria-Gasteiz, 13 de septiembre de 2022.



Iz./ Fdo: **Eguzkiñe DE MIGUEL AGUIRRE**  
**ARABAKO OSASUN MENTALEKO SAREKO ZUZENDARI GERENTEA/**  
**DIRECTORA GERENTE DE LA RED DE SALUD MENTAL DE ARABA**